



'Voith-Gorostidi auzia' aztertu dute udalbatzaren Aparteko Bilkuran

TOLOSA EAeko Justizia Epaitegi Gorenak sententzia betetzeko eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari

FORU ALDUNDIA Zerbitzu juridikoek azaldu dutenez, epaitegiaren sententzia Tolosako Udalak bete behar du s



Gaur egun 59 ikasle eta 10 irakasle daude Imaz Bertsolaria eskolan. AGURTZANE BELAUNZARAN

ESKOLA TXIKIEK TXIKITASUNEAN HANDI DIRELA OSPATUKO DUTE

ALTZO Bihar ospatuko dute Eskola Txikien Festa; ikasle, guraso, irakasle eta altxotarrek, orokorrean, elkarlanean antolatu dute jaia 2-3



Jokin Monfort, Andoni Iturzaeta eta Ainhoa Alkorta. A. IMAZ

«Aurtengo Sanjoanek ez dute indarra galduko»

TOLOSA Diru gutxiagorekin bada ere ekitaldi ugari izango dira hilaren 23tik 27ra 4

Palestinar herriarekin elkartasuna!

Facebook-en:
Plataforma de Guipúzcoa con Palestina

ERRALDOI TXIKIEN FESTA



A.B

Altzo » XXII. Eskola Txikien Festaren lekuko izango da bihar. Ikasle, guraso, irakasle eta altzoarrek elkarlanean antolatu dute festa handia.

AGURTZANE BELAUNZARAN

Eskola Txikien festa handia ospatuko dute bihar Altzon. Urtebete daramate prestaketa lanetan eta nabaria da festaren usaina herrian. Agertokia plazaren erdi-erdian, karpak, apaingarriak kaleetan, ohikoa baino mugimendu handiagoa.....

Pasa den urtean, Berrobiko San Andres eskolak lekukotza eman zientetik lanean ari dira. «Urtebete daramagu prestaketa lanetan, baina azken hilabeteak dira gogorrenak. Aste honetan, urduritasuna nabaria da gainera. Dena lotuta utzi nahi dugu eta bihar dena ongi ateratzea nahi dugu» azaldu du Mila Etxeberriak, Imaz Bertsolaria eskolako zuzendariak.

Laurehun biztanleko herrian, hiru mila lagun espero dituzte. Herri txikia, handi bihurtuko da bihar. Egun handia izango da biharkoa altzoarentzat.

«Gipuzkoako 27 Eskola Txikietakoa ikasleak gonbidatuta daude, baita Bizkaiko eskolabater ere. Eskola Txiki izan direnak ere etortzea

espero dugu» azaldu du Mikel Olano, Santilazpi Guraso Elkarte-ko lehendakariak.

Imaz Bertsolaria eskolako ikasleek eta gainontzeko Eskola Txikietakoe, txikitasunean handi direla ospatu nahi dute. «Txiki izanagatik ere, batzean indar egiteko ahalmena dugula erakutsiko dugu» dio eskolako zuzendariak.

Ekitaldiak txiki, guraso eta gazteentzat

Egitaraua zabala da oso. Goizean hasi eta iluntzera bitartean, bada zer ikusi eta gozatu Altzon. «Umeentzako festa bada ere, gurasoentzako eta Eskola Txikietan ikasi duten gazteentzako egitaraua antolatu dugu» gaineratu du Olanok.

Txalapartaren deiak emango dio hasiera festari. Erlojuak, 10:30ak markatzen dituenean izango da. Oholtza gainean, Imaz Bertsolaria eskolako 5. eta 6. mailako ikasleek, koplak kantatuko dituzte. Eskola Txiki bakoitzari koplana abestuko diete. Herriaren izena entzuten dutenean, eskola

bakoitzeko ordezkariak, opari bat utzi beharko dutelarik oholzta gainean. Festa aitzakia hartuta sortu duten abestia ere aurkeztuko dute.

Ordubete iraungo du harrera ekitaldiak. Ondoren, haur jolasak egingo dira pilotalekuan. «Jolas kooperatiboak dira, bata besteari lagunduz parte hartu beharko dute. Ez da lehiarik egongo. Batak bestea behar baitu jolasa burutzeko»

Udaletxe azpian 9 ikaslerekin sortu zen eskola. Orain, 59 ikasle eta 10 irakasle daude

ko» argitu du eskolako zuzendariak.

Bazkari aurretik, lekukoa eskuz aldatuko dute. Altzok Abaltzisketari emango dio datorren urteko festaren ardura. Eskualdean geratuko da berriro Eskola Txikien Festa.

Bazkariaren txanda 14:30ean izango da. Mahaian eserita bazkari eder bat egin nahi duenak, pilotalekuan du lekua, prestatuko jana eskainiko baitute. Etxetik, janaria ekarri dutenek, plazako karpan bilduko dira.

Euskal Herriko pailazo ezaguetarikoak ere, Eskola Txikien fes-

» EGITARAUA

■ **10:30ean.** Harrera ekitaldia herriko plazan.

■ **11:30ean.** Haur jolasak eskola eta frontoian.

■ **13:30ean.** Lekukoa eskuz aldatzea.

■ **14:30ean.** Bazkaria: cateringa frontoian eta etxetik dakartenak plazan.

■ **16:30ean.** Pirritx eta Porrotx pailazoak herriko plazan.

■ **19:00etan.** Lain taldea herriko plazan.

■ **20:30ean.** Bertsolariak herriko plazan. Festari agurra.

■ **21:00etan.** Oinazez erromeri taldea (22:00ak arte)

Egun guztian zehar....

Puzgarriak, erakusketak, eskulan tailerrak, kars-ak, rokdromoa, konpartsa, kalejira....



tara hurbilduko dira. Pirritx eta Porrotxek Altzoko eskolako ikasle, guraso eta irakasleekin dantza egingo dute oholzta gainean. Gero, bildutako guztiak aho zabalik edukiko dituen emanaldia eskainiko dute.

Gazteen tartea, iluntzeko zazpietan izango da. Lain taldearen kontzertuarekin, eskualdeko gazteak erakartzea dute helburu. Oholtza gainean, musika taldeak amaitzean bertsolarien txanda etorriko da. Sorozabalek eta Iratzuk, balkoitik botako dituzte bertsoak, era zaharrean. 22:00ak bitartean luzatuko dute festa Oinazez taldekoek.

Egunean zehar hala ere, sorpresak izango dira. Altzoarrek prestatuko antzerki emanaldia tarteko. Altzoko Erraldoiak, Imaz Bertsolariak, Txirritak eta beste hainbat pertsonai ezagunak ere, festaren lekuko izan nahi baitute; astoa eta gurdia lagun agertuko dira plazan.

Eguraldia beste protagonista

Zerura begira daude antolatzaileak. Eguraldiaren iragarpena ez baita oso ona. Baina, konponbidea jarri diote altzoarrek. Festa eta giro ona ez du ezerk eragotziko. Karpa handiak jarri dituzte herriko puntuetan eta denentzako le-



AB



AB

kua izango dela azpimarratu du Mikel Olanok.

Bestalde, bi aparkaleku egokitu dira, bata Alegiako industrigune berrian, bestea Txaraman. Autoak bertan aparkatu eta bost autobus ibiliko dira joan etorrian, 10:00etatik 22:30era.

Herritarren sormena eta lanerako gogoia

Antolaketa lanetan herritarrek izan duten inplikazio azpimarratu du Olanok. «Hasieratik, herriko elkarteak, irakasleak, gurasoak eta Udala elkarlanean aritu gara. Herri guztiaren festa izatea nahi genuen eta lortu dugula uste dut», dio.

Herritarrek lanerako erakutsi duten kemena behin eta berriz azpimarratzen du Santilazpi Guraso Elkarteak lehendakariak. «Jendeak duen sormena ikaragarria izan da, ideiak sortu eta gauzatu dituzte, gainera. Erraldoiaren antzerkia herritik sortutako ideia bat da».

Ametsak gauzatzuz

Hamabi urte pasa dira herriko eskolak, atek ireki zituenetik. 1998ko irailean, 9 ikasle estreinatu zuten udaletxe azpiko eskola. «Gurasoek herriaren eskolaren beharra ikusi zuten, gabezi hau Udalarari adierazi eta eskola sortzeko pausak eman ziren» esan du Olanok. Herriko eskolaren lehen pausoa ziren hauek. Hurrengo urteetan, udaletxeko gela hau txiki geratu zitzaion, Udalak beste gela bat eman zielarik.

9 ikaslerekin hasi zen eskolak, gaur 59 ikasle ditu, 10 irakasle eta eraikin berria. Lau urte dira eskola berrian daudela. «Eskola zoragarria da, argitsua, handia...», dio eskola berriko zuzendariak.

Haur Hezkuntzako bi gela eta Lehen Hezkuntzako hiru ditu Imaz Bertsolaria eskolak. «Zikloka daude geletan, adin ezberdine-

Eguraldi txarra egiten badu ere hartu dituzte neurriak: Karpa azpian egingo dira ekitaldiak

tako ikasleak nahastuta. Eramaten ditugun proiektuak ere oso aberasgarriak dira. Umeek eginkizun ezberdinak hartzen dituzte; handienek txikienei laguntzen die. Eskola Txiki izateko arrazoietako bat hauxe da», azaldu du Josebe Rezola ikasketak buruak. Horrez gain, informatika, psikomotrizitate eta jangela ditu. Baita, patio eder bat ere.

Herri bakoitzak bere eskola izatearen garrantzitsua behin eta berriro nabarmendu dute antolatzaileek. «Herriaren eskola izatean, umeak bertan geratzen dira. Arratsaldetan pilotan, bizikletan... jolasten dute kalean. Altxok eskola ez balu, lo egiteko herria bakarrik litzateke, umeak eskolan herritik kanpo eta baita gurasoak ere, lana dela eta» dio Mikelek.

Eskola Txikien lema horixe: *Eskola Txikiak bizirik, herri eta auzo txikiak bizirik.*



AB



AB



txokoa hitza



SARIDUNAK

Iurako Ikastolaren alde
IRRIEN LAGUNAK
Pirritx eta Porrotx-en ikuskizuna ikusteko sarriren sariduna

Maria Angeles Ezeiza Tapia (Tolosa)

Ekainaren 16an • Asteazkena • 18:00ean
Iurako pilotalekuan

Sarrerak lehiatilan harpidedun txartelarekin

«Ohi bezala, egitarau indartsuarekin» datoz aurtengo San Joan jaiak

Aisia » Hilaren 23tik 27ra izango dira herriko festak; 115.000 euroko aurrekontua izan dute, besteetan baino murriztagoa.

ERREDAKZIOA

Egun gutxi batzuk baino ez dira geratzen herriko jaietarako, eta herritarrak gogotsu somatu daitezke suaren inguruko festetan murgiltzeko. Bada, egitaraua aurreko egunetara ere zabalduko den arren, jaietara emango dien suzuria hilaren 23an entzungo dugu, eta festaren burrunba ez da isilduko hilaren 27ra arte.

Eragin zuzena izan du egun bizi dugun egoerak jaietara aurrekontuan, eta «beste urteetako baino murriztagoa» izango da, 115.000 eurokoa, hain zuzen. Dena den, atzo egin zuten aurkezpenean Andoni Iturzaeta kultur zinegotziak azaldu bezala, «jaiak ez dute indarra galduko».

San Joan Eguna, hau da, hilaren 24a, nabarmendu dute egitarauetik, «hori baita jaietako ekitaldirik garrantzitsuenak biltzen dituen eguna, hala nola, eskopetariak, San Joan alardea, bordondantzariak edota Udaltzaren desfilea, beste urteetan».

Sanjoanetatik nabarmendu be-



Jokin Monforf kultura teknikaria, Andoni Iturzaeta kultur zinegotzia eta Ainhoa Alkorta koadrilen eguneko ordezkaria. A.I.

harreko bigarren puntua Koadrilen Eguna litzateke kultur zinegotziaren arabera, hilaren 26a, alegia. Izan ere, «indartsu» dator aurtengo ere, eta horren adierazle da 600 lagun baino gehiago elkartzeko direla bazkarian. Euskal Herria plazan izango da aurtengo, eta koadrila bakoitzak prestatu beharko du bere jantzia.

Bestalde, iaz bezala, zezenketa-rik ez da izango aurtengo. Hori bai, gaztetxoentzat bigantxak jarriko

dituzte, eta sokamuturra izango da zezen-plazan bertan.

Herriko taldeen presentzia

Musikak ere bere lekua izango du sanjoanetan; hori bai, bertako taldeek izango dute protagonismoa. Kanpoko taldeen artean azpimarratzekoa da Ile Aiye perkusio talde brasildarraren parte-hartzea. «Ostegun gauean ariko dira, eta Mulanbo perkusio taldearen laguntzari esker izan da posible eu-

ren biran Tolosan geldialdixoa egitea». Emanaldietan aipatu beharrekoa da, baita ere, Mokolo pailazoa zenaren omenezkoa. Ostiral gauean izango da, eta hainbat musika talderen saioekin osatuko dute.

Gazte nahiz heldu, adinguztietako moduko ekitaldiak izango dira, eta «Inauterietan gertatzen den bezala, herritar guztiak herriaren geratu, parte hartu eta jaiak gozatzeko» da helburua.

Felix Yarzaren oroimenezko VI. Pintura Lehiaketa martxan da

Kultura » Hilaren 15a izango da izena emateko azken eguna; lanak hilaren 18an eta 21ean aurkeztu beharko dira.

ERREDAKZIOA

Seigarren urtez, Felix Yarzaren Oroimenezko Pintura Lehiaketa antolatuta du Txinparta elkarteak. Eskualdean jai edo bertan bizi diren artista guztiak parte hartu ahaliko dute, eta gehienek, parte-hartzaile bakoitzak bi lan aurkeztu ahaliko ditu. Hori ekitaldiaren beharko dute, teknika librez eginak, eta gaia norberak aukeratu beharko izango da.

Datorren asteartea, hilaren 15a baino lehen eman beharko da izena, eta lanak hilaren 18 eta 21ean entregatu beharko dira 19:30etik 20:30era, elkartean. Epaimahaia- ren erabakia hilaren 25an jakinaraziko dute, 18:30ean, hain zuzen ere. Egun horretan bertan zabalduko dute epaimahaia aukeratu-tako obrek osaturiko erakusketa, eta hilaren 27ra arte izango da ikusgai Txinparta elkartean.

Aurkeztuko diren lanetatik epaimahaia hiru aukeratuko ditu. Irabazleak 240 euroko saria jasoko du, bigarrenak 180 eurokoa eta hirugarrenak, 120 eurokoa.

Aurten graffitiak «maila handiagokoak»

Kultura » Bihar emango dute jakitera Lehenengo Graffiti eta Mural Lehiaketako parte-hartzaileen zerrenda.

INIGO TERRADILLOS

Azken urteetan bezala, graffitiak euren lekua izango dute San Joan jaietara. Aurten, gainera, lehiaketa moduan egingo dute, parte-hartzaile kopurua eta kalita-

tearen maila handitzea lortu dutelarik.

28 parte-hartzaile, 6 emakume GKO galeriak Udaleko Berdintasuna, Gazteria eta Kultura sailarekin batera antolatu du Lehenengo Graffiti eta Mural Lehiaketa. Beantatuz izena eman diote pintatu eta babarrunekin (ingelesez bean) jokoak egin. Dagoeneko 28 lagunek eman dute izena, eta horietatik 6 dira emakumezkoak. Nerea Cereceda gazteria teknikariak azaltzen duen bezala, helburuetako bat, hain zuzen ere, hori zen, «emakumeen presentzia areagotzea, eta lortu dugu, beste urteetan gutxiagok parte hartu izan baitute». Bihar ezagutaraziko dituzte parte-hartzaile guztien izenak GKO galeriakoen web orrian (www.gko-gallery.com).

Parte-hartzaileak Euskal Herri osotik etorritakoak izango dira, eta bakarren bat atzerrikoa ere bai. Hauek hilaren 18an 16:00etan hasiko dira margotzen aurretik zehaztu diren herriko hainbat hormetan, eta hurrengo eguneko 18:00etarako bukatu beharko



Ibai Luke, Nerea Cereceda eta Irene Larraza, ekimenaren aurkezpenen. I.T.

dute. Teknika librean ariko dira, baina guztiak gai bera izango dute ardatz, sua, alegia. «Beste berrikuntza aurten herriko hormetan pintatuko dugula da, izan ere, orain arte paneletan egiten genuen», azaltzen du GKO galeriako Ibai Lukek.

Lanak bukatu ondoren, 19:00etan jakingo da nortzuk diren irabazleak. Sari potoloak dituzte zain: lehenentzat 1.800

euro, bigarrenentzat 800 euro, hirugarrenentzat 350 euro, laugarrenentzat mtn pack-a eta bosgarrenentzat Eceiza produktuen saskia. Sari banaketaren ostean, Pixel Panchoren erakusketa zabalduko dute GKO galerian.

Lukek azaltzen duenez, «Tolosa erreferente bilakatzen ari da graffiti munduan, eta geroz eta gehiago dira gurea margotzera gerturatzen diren artistak».

Laburrak

Realaren partida ikusteko pantaila jarriko dute bihar

KIROLA » Realak eta Celtak jokatu-ko duten partida plaza Berrian ikusteko aukera izango da bihar, 18:00etatik aurrera. Pantaila erraldoia jarriko dute, eta partidaren aurretik eta ondoren musikarekin girotuko dute plaza.

Aldaban San Antonio Eguna ospatuko dute bihar

AISIA » Aldabako Intxur Auzo elkar- teak San Antonio Eguna ospatuko bazkaria antolatu du bihar-ko. Halaber, bazkariarekin batera, auzotarren parte-hartzearekin landu den Aldabako Gida Turistikoa auzotako dute. Tolosako Landa Auzoetako hirugarren gida da hau, eta Tolosako Udalar- en eta Tolosaldea Tour-en bitartez bide- raturiko proiektua izan da. Auzoko- toki eta ezagunak esanguratsue- nak biltzen ditu, eta eskualdeko bi- sitariak Aldabara gerturatzea du helburu. Bestalde, astelehenean, Migel Zeberio zuzendari den Do- nostiako Ereskitxo haur abesba- tzak kontzertua emango du Alda- bako elizan, 19:00etan.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

'Voith-Gorostidi auzia'n galdera eta erantzunek bere horretan diraute

ASIER IMAZ

Venta de Baños (Palencia) eta Tolosa herrien arteko senidetzea onartu zuen herenegun Udalak, Aparteko Bilkuran. Gai nagusia ordea, Voith-Gorostidi auzia izan zen.

Eztabaida eta hitzaldien ondoren, zalantzek bere horretan jarraitzen du: Zer gertatzen da 2007ko arau aldatetekin? 2009an onartu zuten Plan Orokorrekin bertan behera gelditu al ziren? Voith-Gorostidi eremuan eragin praktikorik ba al du EAEko Justizia Epaitegi Gorenaren sententziak?

EA, EB-Aralar eta Ezker Abertzalea, alde batetik

Tolosako lau alderdi hauen ustez, erantzunak honakoak dira: 2007ko arau aldatetarik indar gabe utzi zituen Epaitegi Gorenaren sententziak. 2009an Udalak onartu zuten Hirigintza Plan Orokorra, 2007ko aldateta xehatuen aipamen zehatza egiten duenez, sententziak dioena kontuan hartuz, Voith-Gorostidi eremua ordenamendu xehatu gabe dago eta berri bat egin behar da.

Argudio hauek lau puntuko mozio batean garatu zituzten. Bik adostasunerako bidea zabaldu zuten. Hirugarrenengoan egindako aldatetak ez ziren eztabaidatu eta laugarren puntuak EA eta EB-Aralar bakarrik utzi zituen bozketa garaian.

Honela defenditzen du bere burua puntu honek: *Eremuaren erakigarritasunaz Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorenak agindu duena ahalbidetzeko, dei egiten diogu Jokin Bildarratzek alkateari oraindik erakitzen hasi ez diren eremuetan erakitzeak aukera eten dezan ordenamendu xehatu berria egiten ez den bitartean.*

EAJ, PP, PSE-EE eta Hamaika Bat, bestetik

Tolosako Udalean gehiengo nagusia osatzen dute lau alderdi hauek. Eurentzat, arestiko galderen erantzunak honela laburbildu daitezke: EAEko Justizia Epaitegi Gorenaren

sententziak indargabetu duen dokumentua, Udalak 2009ko martxoaren 31ko bilkuran indargabetu zuen. Orduan onartu zen Hirigintza Plan Orokorra bertan behera utzi zituen 2007ko aldatetak.

Jokin Bildarratzek EA, EB-Aralar eta Ezker Abertzalearen mozioa eskuetan hartu eta adostasun puntuekin, lautik hirurekin, mozio alternatibo bat aurkeztu zuen. Egia esan, hirugarren puntuan Bildarratzek etxebizitza libreak aipatu zituen eta honen inguruko eztabaidarik ez zen garatu.

Mozio hau izan zen aurrerairten zena, EA eta EB-Aralarren aurkakobotoekin.

Puntu amankomunak

Bi blokeen artean, herenegungo bilkuran puntu amankomunak ere agerian gelditu ziren: Gaia aztertzerako unean adituen beharra onartu zuten alderdi gehienek; aurkeztu ziren mozioetako bi puntu berdin-berdinak ziren; hau da, elkarlanaren aldeko aldarria eta Voith-Gorostidiko bizilagunen defentsa eta euren eskubideak defendatzeko konpromisoa.

Bilkuren etetea

Mozio alternatiboa irakurri aurretik, eurek aurkeztutako mozioa defendatzeko hitza eskatu zuten publikoan zeuden Antton Izagirrek (Ezker Abertzalea) eta Iñaki Irazabalbeitiak (Aralar). Bildarratzek horretarako aukera bilkuraren amaieran izango zutela azaldu zuten. Izagirrek «beste batzuetan egin den bezala», «parentesi bat irekitzea» eskatu zuen, hitz egin ahal izateko. Bildarratzek bilkura ez zuela etengo esan eta aurrera jarraitzen saiatu zen. Izagirrek berriro eskatu zuen hitza. Publikoak ere Izagirreren alde egin zuen. Zurrinbiloa zabaldu zen aretoan eta honen aurrean alkateak bilkura etetea erabaki zuen. Ondorioz, EAJ, PSE-EE eta Hamaika Bateko ordezkariak aretoa utzi egin zuten. PP, EA eta EB-Aralarreko zinegotziak aldiz, Izagirreren eta Irazabalbeitiaren hitzak entzuteko borondatea erakutsi zuten.



Ezker Abertzaleko eta Aralarreko kideak goian. Behean, EAJren zinegotziak bilkura aretoa uzten. A. IMAZ

Gipuzkoako Foru Aldundiak ala Udalak ejekutatatu behar du sententzia?

Jokin Bildarratzek bilkura eten ostean, Antton Izagirrek (Ezker Abertzalea) hartu zuen hitza herenegun, Tolosako udaletxearen aretoan. Bertan elkartu ziren lagunengana zuzendu zen alkate ohia. Bere esanetan, EAEko Justizia Epaitegi Gorenak sententziaren ejekuzioa eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiari.

«Tolosako Udalari dagokio»

Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzu juridikotik albiste baiezatu egin dute. Euren esanetan ordea, ejekuzioa betetzearan ardura Tolosako Udalarena da: «Diputazioak dokumentu hori tramitatu zue-nean, gaur egun indarrean dagoen lurzorua legea, zentzu batean ez zegoen indarrean. Lege hori indarrean sartu zenetik, Tolosako Udala, 7.000 biztanletik gora dituzten udaletxe guztiak bezala, planeamendu orokorra aldatzeko eta behin betikoz onartzeko gai da. Ondorioz, kasu honetan, nahiz eta bere garaian diputazioak hartutako erabaki bat indargabetu, epai horren ejekuzioa Tolosako Udalari dagokio; epaia eman den unean

lurzorua legea aplikagarria delako». Horrelako sententzia bat nola gauzatu daitekeen galdetuta, ez dela «gai xamurra» azaldu dute: «Tolosako Udalak aztertu eta erabaki beharko du nola gauzatu. Badakit hainbat interpretazio daudela gaiaren inguruan, Udalak eduki dezakeena edo auzi jartzaileena. Egia esateko ez dabatero gai xamurra. Erantzun garbi bat ez dagoela esan nahi dut. Ez da ez A ezta Z ere. Tardean gauza gehiago kabitzen dira».

Udalaren balizko erabaki horrek ordea, desadostasuna sor dezakeela ere onartu dute Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerbitzu juridikotik: «Auzi jartzaile ados ez baldin badago Udalak epai horren ejekuzioa betetzeko egin dituen pausoekin, behin berriz ere iztidente bat aurkeztuko du epaitegiaren aurrean, esanez 'aizu, Udalak egin duen ejekuzioa behar bezala ez dela egin ulertzen dugu guk, ez gaude ados' eta orduan epaitegiak esan beharko luke».

Azkenik, gaiaren inguruan iritzi juridikoaz galdetuta, honakoa erantzun dute: «Egia esateko gaia

ezagutzen dut baina ez dut zuzenki landu. Baina esango dizut: epai hori ikusi dugunean eta jakinda epaitegiaren momentu honetan egiten ari den interpretazioa, epai horren ejekuzioa noren esku gelditzen den entzun dugunean, oso lasai gelditu garea onartu behar dut».

«Foru Aldundiari dagokio»

Tolosako Udaletik, bai idazkariak eta baita alkateak ere, aurkakoa azaldu dute: «Sententziak azken orrian Foru Aldundiak hartutako erabaki bat indargabetzen duela dio. Ondorioz, logikoa den bezala, ejekuzioa ere eurei dagokiela uste dugu. Diputazioak alderantziz dio, lurzorua legea aipatuz gure ardura dela. Gure ustez aldateta hura ez zen lege berri horrekin egin. Baina Foru Aldundiak iritzi bat baldin badu eta guk bestea, epaileak erabaki beharko du. Une honetan beraz, garrantzi handiegirik ez diogu ematen, azkenean epaileak erabaki beharko baitu tokatzen zaion. Hori jakitean, ejekuzioa nola egin beste gauza bat izango da».

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Ikasleentzat pisua alokatzen da Gasteizen. Interesatuak dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 945 30 01 30.

SALGAI

■ **Autokarabana.** Blu Camp autokarabana salgai, 2006. urtekoa. Oso egoera onean. Ikusi nahi duenak inongo konpromezurik gabe deitu 652 73 85 62 zenbakira.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliag banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuetarako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40



laz egin bezala HITZak bizikletaz egiteko ibilbideak proposatuko ditu larunbatero. Aurten ordea, Tolosaldeko atera eta gertuko herriak eta eskualdeak bisitatuko ditugu.

Aurten ere bizikleta lagun

JOXEMI SAIZAR

Aurreko udan esaten genuen bizikletak udarako direla eta aurten ere ia zoko eskaintzarekin gatzoz, bizikleta ibilaldiak, baina berriak. Iaz Tolosaldeko herriak ezagutzeko aukera izan genuen. Aurten Tolosaldeko gertu dauden herriak eta eskualdeak ezagutzeko parada izango dugu: Gipuzkoako Goierri, Beterri

eta Urola, Nafarroako Araritz eta Larraun... Astero astero proposamen bat argitaratuko du HITZak. Hori bai, ia zoko prestakuntzaren ondoren, aurtengoak bidai luzexekoak izango dira, 40-60 km ingurukoak. Eta gure eskualdea mendiz inguratuta dagoenez, mendeak igotzea ezinbestekoa izango da Tolosaldeko atera eta inguruko eskualdeak ezagutu ahal izateko.




Aiako plaza, udaletxea eta San Esteban elizarekin. JOXEMI SAIZAR

Andazarrate-Aia (46 km)

J. SAIZAR

Gure eskualdeak itsasora duen irtenbide motzena eta naturalena hartuko dugu bilduma berriko lehen ibilaldi honetan. Betidanik izan da Tolosaldean Oriara edo Zarautzera joateko ohitura, batez ere udan. Mendiz kasu batzuetan, bizikletaz beste batzuetan. Kostako itzulia ia tradizio bilakatu da hemen. Ibilaldi hori agian luzeegia izango da aurtengo denboraldia hasteko. Andazarrate eta Aiara bideratu dugu lehen irteera hau.

Aldapa dezente aurkituko dugu, laurehun metrotik gora igoberhar baitugu. Ez da, ez, xamurra orain arte herriko ibilbide lauk besterik egin ez duenarentzat, nire kasuan bezala. Hasteko, Anoeta, Villabona eta Asteasuraino garmatzen bidea ezaguna dugu jada.



Ez dauka zailtasunik, nahiko laua da eta, trafikoa ekiditeko, Oriaraino ezkerretik doan errepide hartuko dugu Villabonara. Zubimusetik abiatzen da GI-2631 errepidea eta berak eramango gaitu Aiara. Txirrindulari asko ikusten da inguru honetan, trafikoa handirik ez dagoela aprobetxatuz.

Asteasun bertan hasten da aldapa, sei kilometrotan hirurehun metro baino gehiago igoaraziko gaituena. Hor hasten dira komeriak. Andazarrateko gainan lortuko dugu txango honetako punturik altuena eta kostaldera begira ikuspegi ederrira izango dugu, garbi baldin bada behintzat. Aurreko mendean



San Juan Bataiatzailearen ermita Asteasu, Aia eta Errezil arteko mugan aurkitzen da.

Andazarrateko Aiara jaitsiera leuna dugu. Aia herri handia da zabaleraz eta auzo asko ditu: Laurgain, San Pedro, Urdaneta, Elkano, Altzola... Denak ezagutzeko lan handia emango liguke oraingo honetan. Kaskoan dauden San Esteban parroki eliza eta gertu dagoen Aizpeako Andra Mari ermitarekin konformatu behar. Pagoeta parkea ere ez dago urruti eta merezi du bisita egitea. Sasoiaren dagoenak Oriaraino luza dezake ibilaldia, hondartzan urteko lehen itsas bainua hartzeko aprobetxatuz. Aukera hori beste hamar kilometroko eranskinalizateke.

osasan etxe handi eta ospetsu auzan bertan. Aldapanahikoa ez duenak beste kilometro eta erdi luza dezake, Iturriotzeko bentaraino (586 m), Herniora igotzeko abiapuntu erabilienetako bat. Bertako

Itzulera bide beretik egingo dugunez, ez du misterio handirik: igoera leuna Aiatik Andazarrate, handik jaitsiera gogorra Asteasura eta bukatzeko eremu laua Tolosaraino.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Laburrak

Ehunmilak antolatzeko boluntario bila dabilta

AMEZKETA ● Uztailaren 16 eta 17an egingo da Ehunmilak mendi lasterketa. Probak duen dimentsio handiagatik, boluntarioak behar dituzte hau antolatzeko, batez ere Amezketako gunean. Horregatik, laguntzeko interesa dutenentzat, bilera deitu dute. Hau hilaren 17an izango da balio anitzeko gelan, 19:30ean. Informazio gehiago nahi duenak Mainu Odrozolari (660 04 26 80) deituta lor dezake.

Mintzalagunari agur esateko, Egañaren hitzaldia

VILLABONA ● Mintzalaguna egitasmoaren eta euskalduntze-alfabetatze ikastaroak amaierara iritsi dira, horregatik, Villabonako eta Zizurkilgo euskara zerbitzuek ekitaldi bat antolatu dute. Hala, datorren asteartean, hilak 15, Andoni Egañak hitzaldia eskainiko du, ahozko komunikazioaren inguruan. Saioa Villabonako Subijana etxean izango da, 19:00etan. Herriar ororentzat zabaldua dago.

Udalbiltzako elkartasuna adierazteko elkarretaratzea

ZIZURKIL ● Udalbiltzaren aurkako auzia dela eta, hau salatzeko elkarretaratzea deitu dute gaurko. Protesta Zizurkil behoko plazan izango da, 12:00etan. Zizurkilgo Ezker Abertzaleak herritar guztiei dei egiten die, bertan parte hartzeko.

Festetako balorazioa egiteko bilera, asteartean

ANOETA ● Datorren asteartean, hilak 15, 18:00etan, Udakal deituta, bilera egingo dute aurtengo Anoetako festen balorazioa egiteko. Honenbestez, jaietan parte hartu dutenei nahiz herritar orori, bertan parte hartzeko deia luzatzen diete.

Loatzokoen kontzertuak datorren astean

KULTURA ● Loatzokoen musikako eskolakoek, ikasturte amaierako kontzertuak eskainiko dituzte datorren astean. Lehendabizikoa etzi izango da, Anoetako elizan, 18:30ean. Hurrengoa berriz, asteartean. Hala, Villabonako tailerreko ikasleek Musika Eskolan audizioa egingo dute. Egun berean, Alegian, Kultur Etxean, 19:00etan izango da saioa.

Arbizu izango dute aurkari gaur, herriartekoan

LEITZA ● Nafarroako herriarteko txapelketan, Arbizu izango du aurkari asteburu honetan Leitzak. Gaur 19:00etan Amazabal pilotalekuan izango dira partidak. Ohi bezala, lau norgehiagoka ikusi ahal izango dira denera; alebinenak, infanilenak, jubenilenak eta seniorrenak.



Ikasturtea agurtu dute gimnastek

IBARRA ● Belabietako gimnastika erritmikoko taldeak ikasturte amaierako festa ospatu zuen atzo Ibarako Kiroldegian. Jende ugari hurbildu zen ekitaldira eta festa giroan esan zioten agur aurtengo denboraldiari. Gainera, amaiera bikaina izan dute. Leioan, amateur mailan jokaturako Gimnasia Erritmikoko Euskadiko Txapelketan emaitza onak lortu baitzituzten. Jubenil B mailakoetan, Irati Maritxalar 4. geratu zen sailkapen orokorrean eta Onintza Odriozola 9. taldekakoan, jubenil A-ko Belabietak 4. postua eskuratu zuen. Maila berean baina bakarka, Izaro Esnaola 7. geratu zen eta Garazi Egiuren izan zen garaila, laugarren aldiz, gainera. HITZA

Euskadiko Sokatira Txapelketako saioa, gaur

Areso ● 640 kiloko bigarren jardunaldia izango da Erandion ikusiko dena; sailkapenean hirugarren postuan da oraingoz Areso.

ERREDAKZIOA

Lur gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketako bosgarren saioa jokatuko da gaur Erandion (Bizkaia). 640 kiloko bigarren jardunaldia izango da, hain zuzen. Norgehiagoka Erandioko Goierri Martiartun izango da, 17:30etik aurrera.

Aresorekin batera, ondorengo taldeak ariko dira jokoan: Gaztegi (Laukiz, Bizkaia), Getxo (Getxo, Bizkaia), Goierri A (Erandio, Bizkaia), Goierri B (Erandio, Bizkaia) eta Mutriku (Mutriku, Gipuzkoa).

Orain dela bi aste ekin zitzaion

640 kiloko txapelketari, eta Goierri A gailendu zen. Berritasunen artean aipatzekoa da, Mutriku bigarren sailkatu izana. Besteak beste, tiraldi bat irabazi zion Goierri A taldeari. Oro har, lehia estua izan zen tiraldi gehienetan, eta berdinketa bat baino gehiago izan zen saioan.

Oraingoz, lur gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketako sailkapen orokorra honela dago: lehen postua Goierri A-arentzat da, 6 punturekin; bigarrena, Mutriku-arentzat, bostekin; hirugarrenean berdinketa dago 3,5 punturekin Gaztedi eta Aresoren artean; eta laugarrena Getxo da 2 punturekin.

Gaurkoaren ostean, 640 kiloko azken jardunaldia Aian jokatuko da. Hilaren 20an izango da hau. Bestalde, hilaren 27tik aurrera, 600 kiloko artekoak hasiko dira. Hor ere Areso ikusteko aukera izango da.

Fernandez Hondarribitik abiatzera doa Espainiako bela itzulia korritzeko

Ibarra ● Estreinaokoz jokatzen den proba eguerdian abiatuko da Gipuzkoako kostatik, eta hilaren 30ean bukatu.

ERREDAKZIOA

Belako Espainiako Gira hasiko da gaur eguerdian Hondarribian. Zortzi ontzik parte hartuko dute, eta tartean izango dira Iker Martinez eta Xabi Fernandez munduko txapeladunak. 1.735 itsas milia zeharkatu beharko dituzte. Proba, Santander, Gijon, Sanxenxo, Calpe eta Palma de Mallorcatik igaroko da. Helmuga Bartzelonako portuan izango da, eta aurreikuspenen arabera, hilaren 30ean iritsiko dira hona partaideak.

Vincent Riou eta Marc Guillemot kapitain dituzten PRB eta Saffran ontziak dira faboritoak. Bestalde, nabigatzaile ibartarrak eta bere kideek, Barcelona World Race estropada prestatzeko erabiliko dute estreinaokoz jokatzen den proba hau.

Luxuzko taldekideak

Estropadak irauten duen bitartean, taldea aldatuz joango da, nahiz eta Xabi Fernandez eta Iker Martinez beti egongo diren ontziaren gainean. Hauekin batera, tartekatuz, tripulazioa ondorengoek osatu dute: Fernando Sales gipuzkoarra, Gonzalo Fernandez de Velasco Nervio nafarra, Gabriel de



Movistar ontziarekin korrituko dute Fernandez eta Martinezek. HITZA

LLano eta Pedro Campos galiziarak, Eduardo Valderas txiletarra eta Michel Desjoyeaux bretoia. Azken hau, munduari itzulia bakarka eta eskalarik gabe ematen dion proba irabazi duen bakarra da. Desjoyeaux Xanxenxo eta Calpeko portua lotzen dituen etapatik aurrera izango dute laguntzaile gipuzkoarrek. Honenbestez, hiru etapa egingo ditu berekin.


Ibilbide luzeko ontzia

Astearte gauean iritsi zen Movistar izeneko ontzia Hondarribiko portura. Hau, Desjoyeauxek azkeneko Vendee Globe estropada irabazi zueneko da. Urte hasieran erosi zioten Fernandez eta bere kideek. Hori dela eta, alde horretatik ere onura handia egingo die gipuz-

tee ontzigileak egina. Neurrie dagokionean, 18,28 metroko luzera du, 5,85 metroko zabalera eta 4,5 metroko sakonera.

Fernandez eta Martinezek aste honetan egindako adierazpenen arabera, estropadari ekiteko «gogo biziz» daude, azken boladan nabigatzeko aukera gutxi izan baitute. Urtarrilean Bahametan jokatutako Munduko Txapelketa jokatu ostean, Frantziara joan ziren, Port la Foret-era ontziari aldatetako egitera.

Ontziak denbora gehiago egin du lur gainean, itsasoan baino, hainbat ukitu eman behar izan baitzitkiote, orain, puntuan egoteko. Ondorioz, gainontzeko ontziaren alderatuta, ez dute beraiena nola ibiltzen den ikusteko aukerarik, eta orain, hori neurtu nahi dute gero Barcelona World Race proba jokatu ahal izateko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Leitza.** Zakurren amorruren aurkako txertoa jarriko dute suhiltzaileen parkean, 12:00etatik 14:00etara.
■ **Tolosa.** San Joan festak direla eta, Iturriza Elkartea II. Mus Txapelketa antolatuta du. 4 eta 8 erregeen modalitatean jokatu dute parte hartzen dutenek. Ekainaren 16a bitartean egongo da zabalik izena emateko epea. Interesa duten bikoteek, Iturriza Elkartera hurbildu beharko dute goizeko 10:00etatik 12:00ak bitartean. Txapelketa ekainaren 23an hasiko da 10:30ean.

Gastronomia

■ **Tolosa.** *Illargi Coupage* gastronomia azoka Zerkausian: Gaur bazkaria *delicatessen* (Burruntzi, Orue, Ilargi, Hernialde, Iriarte, Eceiza); aforia *Ezer ez da dirudiena* (Mirador Ulia jatetxea). Izen-ematea, Tolosaldea Tour (45 euro, 943 69 74 13).

Ikastetxeen festak

■ **Zizurkil.** Pedro Mari Otaño herri ikastetxearen festa: 10:00etan jaiaren hasierako txupinazoa eta futbol partida; 10:30ean haur jolasak; 11:00etan futbol partida; 12:00etan ikasleen emanaldia; 13:30ean abesbatzaren emanaldia; 14:00etan bazkaria; 16:00etan puzgarriak, gazteluaren jokoak, ludoteka...; 16:30ean mus txapelketa; 17:00etan elkarren arteko jokoa; 20:00etan amaiera eta txupinazoa.
■ **Anoeta.** Anoetako Ikastolaren eguna bihar, hilak 13; 09:00etan ibilaldi neurturen hasiera; 11:00etan kalejira Loatzo musika eskolaren laguntzarekin; 12:00etan ikasleen emanaldia Kiroldegian; 12:30ean futbol partida; 14:00etan bazkaria; 16:00etan jo-

koak; eta goizean zehar eskularen erakusketa ere bisitatu ahalko da.

Kirola

■ **Alegia.** VI. Kirol Astearen amaiera: 21:00etan 2009-2010 futbol denboraldi amaierako festa. Zahargardoa (sagardoa eta ardoarekin) herriko plazan. Intxurre K.K.E. antolatuta.
■ **Tolosa.** Bigarren mailako Buruz Buruko pilota Txapelketaren finala Beotibar pilotalekuan: Mikel Berroiz-Aritz Lasa.

Kultur Asteak

■ **Leitza.** 19:00etan Bigarren Sagardo Eguna ospatuko dute herriko plazan Kultur Astea amaitzeko.

Musika eta ikuskizunak

■ **Alegia.** Alegiako Txintxarri abesbatzaren 50. urteurrena dela eta, Donostiako Orfeoia kontzertua 20:15ean Joan Bataiatzailea Deunaren elizan; Jose Uruñuelaren *Maitia nun zira*, Haendelen *Alleluia*, Javi Bustoren *Ave Maria* eta beste abesti batzuk. Sarrera doan.

■ **Tolosa.** Tolosako Orfeoia Giocchino Rossiniren *Petite messe solennelle* eskainiko du Santa Klara komentuan, 20:30ean.

■ **Tolosa.** Kultur Etxeko dantza tailerreko ikasleen dantza jaialdia Leidor aretoan, 18:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5, 112.

■ **Iruztzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneri eta iritzien erantzukizunik.



Santa Kruz Apaiza plazak obrak amaituta duen itxura berria. E. MAIZ

Urte hasieran hasi zituzten Santa Kruz Apaiza plazako obrak bukatu berri dituzte. Orain, bigarren zatia falta da, pilotalekua zaharberritzea.

Plaza berritua Hernialden

ERREDAKZIOA

Hernialden, bi proiektu aukeratu zituzten Foru Aldundiako Landagipuzkoa 32 proiektuaren baitan diru-laguntzak eskatzeko. Alde batetik, frontoia zaharberritzea eta beste-tik, Santa Kruz Apaiza plaza urbanizatzea aukeratu zituzten.

Bi proiektu hauek gauzatzeko 159.221,23 euroko kostua izango du Hernialderentzat. Horietatik 140.000 euro Foru Aldundiak jarriko ditu.

Santa Kruz Apaiza plazaren urbanizazioko bigarren fasea egin

dute. Plaza, udaletxea, eliza eta frontoiaren arteko espazioa da eta obren lehen fasea, 1998. urtean bukatu zuten. Plazaren zati bat oinezkoentzat egokitu izan da eta beste zati bat kotxeak aparkatzeko erabiltzeko moduan jarri dute.

Bestalde, T bat egin dute autobusak maniobrak egiteko lekua izan dezan. Gainera, argiteria, aulkiak, zuhaitzak eta abar ere jarriko dira plazagunea txukun utziz.

Orain frontoiaren txanda

Berritu berri duten plazaren ondoren aurkitzen da frontoia eta herri-

koplazaren aldebat da berau. Eliza eta Udalaren aldeak berrituta, pilotalekua aldea baino ez da falta. Herri txiki hauentzako frontoiek egiten duten funtzioa oso garrantzitsua izaten da. Herriaren bilgune bihurtzen dira-eta batez ere eguraldi txarra egiten duen egunetan.

Gaur egun, egoera txarrean dago eta proiektu hau aprobetxatuz, zaharberritu egingo dute. Urtea amaitzerako, Hernialdeko herri guñeak itxura guztiz berritua izango du. Guztia, denbora kontua izango da.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Miila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

Villabona
of ka

Aurtengo udan 4x3 eguneko lentiletan

Berria 23 - Villabona
Tel.: 943 111 840

Uxola Sariak 2010

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info



NAGUSIENEN TXANDA

TOLOSA Lehen Hezkuntzako gaztetxoek lanak argitaratuta, asteburu honetan nagusiagoek idatzitakoa argitaratzeko unea ere iritsi da. Gaurkoan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoek (12, 13 eta 14 urte) lanak irakurtzeko aukera izango duzue eta biharkoan, aldiz, DBH 3. eta 4. mailakoena (14, 15 eta 16 urte).

Derrigorrezko Bigarren Hez- kuntzako 1. eta 2. maila: Prosa

'Merkatari zuhurra'

AITOR EZEIZABARRENA PEREZ 1. saria

Bazen behin merkataria alaguna, oso aberatsa zena eta seme bat zuena. Bera eta bere semea jauregi batean bizi ziren zerbitzari askorekin, baina ez ziren luxu handiarekin bizi, aitek ez zuelako dirua xahutu nahi.

Merkatari honek asko maite zuen semea eta oso zorrotza izan arren ikasketak hoberean ordaindu zizkion. Baina, semea alfer samarra zen eta ez zuen asko ikasten. Gainera, semeak pentsatzen zuen bere aita xuhur hutsa zela ez zuelako ezer gstatzen. Merkataria esisten zion asko kostu zitzaizola diru hori lortzea eta ez zuela alferri galdtu nahi.

Egun batean, merkataria

hilteko zorrian zegoela, bere semeai deitu eta dirua eta etxea eman zizkion baldintza batekin: ez zuen dirua alferrik xahutuko.

Semeak onartu eta negar egin zuen aitaren heriotzarengatik, eta hileta dotorea prestatu zuen guztiak bere nita gogoa izan zezaten. Baina handik aurrera aitaren baldintza ez zuen bete, eta jauregi berri bat, arropa, altzarak, luxuzko janaria, harribixi eta urreriak eta abar erosi zituen eta festa eta bazkariak antolatu zituen. Egun batean, ordea, kuxkatzarretan eta kuxketan begiratu zuen eta ez zegoen txanpon bakar bat ere.

Semea, lur jota eta gaizki

sentitu zuen bere aitaren baldintza ahaztu eta diru gabe geratzeagatik. Horregatik, jauregia, arropak eta harribixiak saldu egin zituen, persona arrunta bezala bizi ahal izateko.

Urte batzuetan egoera honetan bizi izan zen, garagardogile latak egiten. Honekin nahikoa zuen ogia eta arropa erosi ahal izateko. Baina, orduan erreimuko lo etregia hil eta bere ania maitzurra jarri zen errege.

Honek, zergak asko igo eta jendea iri diru gehiago eskatu zion herriart asko kalean utzi. Han zegoen gure garagardogilea, Gaueko, orduan, lur jota, bere kuxkatzarretan sartu zen, hutzik ez pasatzeke, eta, bat-batean, began hasi

zen. Garagardogileak ezin zuen hitzik esan, harrituta baitzegoen, eta bi egunetan zehar bidaiatzen ibili zen. Arabara iritsi zen arte. Han, kuxkatzarretan ikuskizun handiak eginez, diru poka bat lortu zuen, nahikoa, garagardotegi bat eraikitzeko. Aurreantzean ikasbidea ikasita, ez zuen dirua alferrik xahutu eta nahikoa diru egin zuen bizitzeko, ondo bizitzeko, gainera.

Ondoren gure garagardogilea ezkondu eta seme bat izan zuen. Hori bere istorioa kontatu eta garagardoaen sekretuak azaldu zizkion, hau ere garagardogile izan zedin.



Handik aurrera garagardogilea zoriontsu bizi izan zen bere familiarekin eta lagunekin.

'Uraren alaba'

USOA ALDABALAIZPURI 2. saria

Bazen behin, hemendik oso urrun dagoen leku baketsu eta eder batean, itxaso igitota dagoen munduko basorik handiena. Hanxe bizi zen bikote txiro baina alai bat. Egun haiekako batean, emazteak, Mireia, jakin zuen haurdun zegoela eta biak oso-oso pozik jarri ziren. Zorionak ez zuen asko irau, hilabete batzuen buruan, gizona, Jony, preso hartu eta gerrara bidali zuten soldadu. Mireia bakarrik geratu zenez, bere ahizpa zaharrenari deitu zion lagun zezala.

Horrenbeste itxarondako unea heldu zen, eta izan zuen bere haurtxo polit

maitagarria: aurpegi borobil, borobila zuen, masail gorri potxoloak zituen eta begi handi ilunak, ezpain txikiak eta azala beltzarona. Ederra zen umetxo baina tamalez, ama hil egin zen. Izelkek, epaiketa batek pasu behar izan zuen eta berak hartu beharke zuela agindu zioten.

Hartu zuen Sofy txikia, hala zuen izena neskatza jaioberriak, eta egun batzuetan zaindu ere bai, baina, izeba Elsa oso eguera ekonomiko larrian zegoen ezin zuten zaindu eta egun triste batean otarre batean sartu eta ur-korronteak eraman zezan ibaian utzi zuen, eta

zaindu zezakeen norbaiten eskutara iristen zen. Biharamunean, ibaian arropa garbitzen arri zen neska gazte xamant baten ondoan geratu zen otarra eta jakinimua pizturik otarretxo hura hartu eta etxera eraman zuen ezzer begiratu gabe, etxekoek ere ikus zezaten. Elkarru zen familia guztia sukaldetxo naban inguruan eta Agatik, hala zuen izena neska gazteak, saskia ireki zuenean guztiak harrituta geratu ziren eta Agataren amak agindu zion bere alaba giztzenari esne bila joan zedin herria.

Sofy oso gogotarik zegoen, ez zen harritzekoa pare bat egun buraririk igaro

ondoren. Eta horrelaxe zaindu zuen denbora askoan, gurasok lagunduta bazen ere. Denbora pidiamak pasatzen joan zen, eta neska 10 urte bete zituen. Egun haiekako batean, Sofy ibaian aurkitu zutela esateko garaia zela iruditu zitzaion neskatxari eta halaxe egin zuen. Gau hartan Sofy-ren hitz egitera joan zen Agata eta honela esan zion:

- Sofy, jakin behar duzu, benetan, ez zarel nire alaba, ibaian aurkitu zintudan. Eta hori esanda negarrez hasi ziren biak. Hurrengo egunean, (hurrengo orrian jarraitzen du)



(hurrengo orrian jarraitzen du)

(Uraren alabaren jarraipena) goizean goiz jekki zen neska eta bidaiariko fardele prestatzen hasi zen segituan. Agatak hura jakin zuenean gilarazi egin nahi izan zion, baina horrenbesteko samina zuen Sofy, ez ziola

kasurik egin nahi, joan egin nahi zuen. Azkenean utzi egin behar izan zion josten, baina Agatik, lagunduko ziola erabaki zuen. Atera ziren etxetik eta arropa garbitzen zuten lekurantz abiatu ziren biak eta ibaian gora jarraitu zuten, handik etorri

baizten otarra. Denbora asko oinez ibili ondoren, herri txiki batera heldu ziren eta jendea galdetza ibili ziren ez ezagutzen zuten duela hamar bat urte haurretako bat otarre batean sartu eta ibaian utzi zuenik. Erantzun gehienak ezekoak izan

ziren arren, batek eman zien nolabaiteko argibidea: hurrengo kalean bizi zen emakume bat izan zitekeela bila zebiltzana. Eskerrak eman ondoren etxe hartara joan ziren zuzenean. Bertan bizi zen emakumea bera zen Sofy-ren izeba. Hark

Sofyen ama hilda zegoela esan zion, baina halere gustura geratu zen benetako familiako norbait ezagutu ondoren eta izeba, bereaikin bizitzera gonbidatu zuten, honek baitz esan eta ondoko herrixkara joan zen bizitzera.

'Ezusteke ehiza'

XANTI NAZABAL URRUZOLA 3. saria

Inuiten kondaira baten arabera, duela urte asko eta asko, Groenlandiako mendebaldean Akukuwa arrantzalea bere iguan bizi zen.

Akukuwak, hotzetik babesteko, foka laruz egindako bereki lodia bat jantzen zuen. Aurpegian foka koipez egindako krema ematen zuen, eguzkiak, haizeak eta elurrak babesteko. Ometan berriz, larruzko oinetakoak jantzen zituen. Akukuwak, arrantza egiteaz gain, fokak hazten zituen, haragia, koipea eta larrua lortzeko. Gaueko ez zuen bere iguan lu egiten, izan ere, batzuetan amaren etxera joaten zen lotara, kosta aldean zegoen Tovet herria.

Egun argitsu batean, Akukuwa, konturatu zen hiru foka falta zitzaizkiola. Arrantzaletz gizona, anaren etxera triste-triste zehatu, Danfikan, ikusi

zuen itxasoan. Balcetan arritsutsuena zen Danfikan. Akukuwak baleak bere fokak irentsi ote zituen susmoa izan zuen. Arrats hartan herria joan zen eta gainerako leinu-kideak ohartarazi zituen.

Berehala batzara antolatuta zuten Toveten. Ingaruko arrantzale eta ehiztari guztiak bildu ziren balea nola ehizatu erabakitzeko. Leinuko buruzagiak esan zuen balea ehizatzeke eguzek egites zela errazena. «Balea, janari bila ibiltzen denean kostara joaten da eguzek eta kostan egongo da bere harrapakaren zelatan», esan zuen. Balea zehin baldian arrantzatu erabakitzen hasi zirenean, izugarritzko eztabaida sortu zen. Batzuk lurmuturraren eskuin aldeko badia proposatzen zuten eta besteek, berriz, ezker aldekoa. Eztabaidari amiera emateko, batzen azaldu.

buruzagiak proposatu zuen erdiak alde batera eta beste erdiak beste aldera joata.

Hurrengo egunean balea ehizatzeraz abiatu ziren leinuko kide guztiak. Akukuwa, lurmuturraren puntatik zortzi bat metrotera zegoenean Danfikan balea agertu zen bat-batean. Akukuwak ziztu bizian eskuz landutako arpoi sendoa bota zion, eta balea zauritu zuen, baina Danfikan uretan murgildu zen orro heldurgarri bat eginez, eta ihes egin zuen. Orroa oztuzan, arrantzale guztiak Akukuwarengana joan ziren. Errietak eta burkaka hasi zitzaizkion ihes egiten utzi ziolako. Akukuwak behin eta berriz esaten zien baleari arpoia sartu ziola. Besteek, ordea, ez zioten sinesten. Alferrik gelditu ziren eztabaidan, balea ez baitzen azaldu.

Hiru egun igaro ziren, eta ondoko leinuko Sema herriko jendea balea bat fokekin jolasten ikusi zutela esaten hasi ziren. Tavetoko herriarek pentsatu zuten Sema jendea erotu egin zela, baleak ez direlako sekula fokekin jolasten, ehizatu egiten baitzuten. Bi egun beranduago, leinuen arteko mugak ehun metrotera, balea bat aurkitu zuten hilda. Berehala oharatu ziren denak baleak saihesten batean arpoiz egindako egia esan zuten. Sema herriarek ikusitako balea fokak harrapatu nahian ibiliko zela konturatu ziren, eta ez jolastan. Balea lurretik arrastan hartu eta pozez kantari eraman zuten Tovet herria. Lurmuturraren puntatik begira jarria Akukuwak bere bizitzako pozik handiena hartu zuen, han zeuden desagertutako hiru fokak.



Herriarek festa ederra antolatu zuten balearen ezusteko ehiza ospatzeko, eta bide batez, Akukuwari eskerrak emateko. Groenlandia mendebaldeko zaharrenek esaten dutenez, horrela gertatu zen Ingaru herriko azken 'piztarien' ehiza.



'Uxola' (atxi) hirugarren ezkerretik hasita) Pirinioetara joan ohi zen sari Mendirik Menditakoak...
Uxola (atxi) hirugarren ezkerretik hasita) Pirinioetara joan ohi zen sari Mendirik Menditakoak...

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. maila: Olerkia

'Ezusteko bisita'

AMETS ESNAOLA BALERDI › 1. saria

Zer gertatu da? Zer da hau?
Hau da ezustekoa!
Maindire zuri erraldoi batek estali dit herria.
Berriro ere lotan gelditu ote da?
Jakina, eguzkia kotoi beltzen atzean gorde baita.

Baina, amets gaiztoa amaitu da!
Eguzkia iratzarri da eta goxo-goxo esnatu gaitu,
zuhaitzak dardarka daude ikararen ikaraz eta lurra
negarrez,
malko geldoak isuriz mendi magaletan behera.

Lausotutako leihoak garbitu
eta izara desagertuz doala ikusten dut.
Belardi berdeak, ibai urdina, amonaren lorontziko arrosa
gorriak...
berriro bistan dira.
Txorien kantu hotsak, haurren algarak, autobideko kamioien
burrunba hotsak...
berriz hemen dira!

Oraingoan bai!
Guztiak jaiki dira, inor ez da lo geratu.
Udaberria ate joka da.



HITZA

'Benetan izutzen nauenak'

UXUE LASA SANCHEZ › 2. saria

Ez nau izutzen
gaurik ilunenak
ezta ere mamu baten
besarkadarik bortitzenak.

Baina zure erantzunaren
zain nagoenean
bai sortzen zaizkidala
izugarritzko hotzikarak.

Hotzikara horien
menpe nago,
estu-estu
ezer egin ezinik.

Bizitza gelditu egin zait,
zure erantzunaren arabera
nire bizitza
aldatu egingo da.

Ez nau izutzen
azken taupadak
baina bai,
zu betirako galtzeak.



HITZA

'Erraketxea'

LEIRE ELOLA ARANGUREN › 3. saria

Ni erreka ondoan eserita,
txori eder, txiki, lirain... bat
entzuten.

Begiak itxita, lasai-lasai,
harri baten gainean jarrita,
soinu lasai horiekin erlaxatzen,
buruko gauza guztiak ahaztu
nahian.

Bat batean, haize fin gozo bat
hurreratu
eta zirrara handi bat sortu zait
bihotzean,
norbaitek belarrira zerbait
kontaktuko balit bezala.



HITZA



kutxa

TOLOSAKO  UDALA